

# DIGITALIZAZIORAKO KOORDINATZAILEA

Aranzadi Zientzia Elkartea natur eta giza zientzien arloan ikerketa zientifikoa eta haren hedapena helburu dituen irabazi asmorik gabeko erakundea da. Sortu zenetik, erakunde independente esanguratsuenetako bat izan da Euskal Herriko natur zientzien eta antropologiaren esparruan. Gaur egun 2.000 bat bazkide eta jakintza-esparru ezberdinetako 150 ikertzaile inguru biltzen ditu. Erakundearen erronka estrategiko nagusien artean jakintza zientifikoaren kudeaketa eta nazioarteko proiektzioa indartzea nabarmentzen dira.

Testuinguru horretan, Elkartea Eraldaketa Digitala estrategiarekiko lerrokatuko duen Kooordinatzaile baten bila dabil..

## EGIN BEHARREKOAK

Zuzendaritza Batzordearen gainbegirapean eta Koordinazio Batzorde eta departamentuekin elkarlanean

- Elkartearen digitalizazio estrategia definitu eta gauzatzea, elkartearen estrategiarekiko lerrokatu eta epe luzeko ikuspegi integrala bermatuz.
- Elkartearen ezagutza zientifikoa kudeatuko duen sistema egituratzea, digitalizatu eta eskuragarri jarriko duen sistema integral baten diseinua eta ezarpena zuzentzea, "biki digitala" kontzeptua oinarri hartuta.
- Dokumentazio, bilduma eta aktibo zientifikoaren digitalizazio prozesuak koordinatzea, bai 2D zein 3D formatuetan, eta horien kudeaketa eraginkorra ahalbidetuko duten plataformak garatzea.
- Datuen kudeaketa aurreratua sustatzea, knowledge graph egiturak, datu-base adimendunak eta informazio sistemak garatuz.
- Adimen Artifizialeko soluzioen identifikazioa, integrazioa eta aplikazioa bultzatzea, bereziki hizkuntza-ereduak (LLM) eta kontsulta adimenduneko sistemak.
- Elkartearen baitan sortzen eta kudeatzen diren eduki zientifikoei dagokien informazio sistemen eta azpiegitura teknologikoaren egokitasuna eta bilakaera gaitasuna bermatzea.
- Barneko eta kanpoko eragileekin lankidetzaren sareak garatzea, bereziki Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarearekin (ZTBES/RVCTI) lerrokatuta.
- Bazkide, bolondres eta ikertzaileei zuzendutako prestakuntza eta laguntza eskaintzea, ikerketa eta hedapenari aplikaturiko tresna digitalen erabilera sustatzeko.
- Komunikazio departamentuarekin elkar lanean, digitalizazioaren bidez sortutako aktiboaren balorizazioa eta gizarteratzea bultzatzea

## ESKATZEN DA

- Goi mailako unibertsitate ikasketak, Informatika Ingeniaritza, Telekomunikazioak, Datu Zientzia edo antzeko arloetan. Baloratuko dira Eraldaketa Digitala, Adimen Artifiziala, Informazio Sistemen Kudeaketa edo antzeko arloetako espezializazioak.
- Ezagutza sendoak datuen kudeaketan, informazio sistemetan eta teknologia berrietan.
- Eraldaketa digital proiektuetan esperientzia. Baloratuko dira 3D digitalizazioa, fotogrametria, GIS sistemak edo aktibo digitalen kudeaketarekin lotutako ezagutzak.
- Euskaraz eta gazteleraz lan egiteko gaitasuna; ingelesa kontutan hartuko da.
- Proiektuen kudeaketan eta diziplina anitzeko taldeekin lan egiten eskarmentua.
- Pentsamendu analitikoa, egituratzeko gaitasuna eta ikuspegi estrategikoa. Gaitasun didaktikoa eta ezagutza transferitzeko ahalmena. Ekimen gaitasuna, autonomia eta erantzukizun maila altua.

## BALORATUKO DA

- Adimen artifizial aplikatua eta hizkuntza-ereduetan (LLM) esperientzia.
- Knowledge graph, datu-espazio edo informazio-egitura aurreratuen diseinuan parte hartzea.
- Zientzia edo ondarearekin lotutako erakundeetan lan egin izana.
- Boluntariotza sareekin edo parte-hartze eredu irekiekin esperientzia.

## ESKAINTZEN DA

- Profesionalki eta pertsonalki garatzeko aukera, eraldaketa estrategiko sakon batean parte hartuz.
- Erakunde historiko baten digitalizazio prozesuaren lidergoa, inpaktu zientifiko, sozial eta kultural handiarekin.
- Berdintasunean, gardentasunean eta gizartearekiko konpromisoan oinarritutako lan-ingurunea.
- Lanaldia: lanaldi osoa.

## BALIOAK

- Aranzadiren balioekin lerrokatzea: boluntariotza, independentzia, gizartearekiko konpromezua, euskara eta berdintasuna.
- "Auzolan" eredua sustatzeko konpromisoa, herritarren parte-hartzea ahalbidetuz.
- Zorroztasun zientifikoa eta nazioarteko proiektzioa uztartzeko gaitasuna.

**Hautagaiak jasotzeko azken eguna, 2026ko Apirilaren 24a izango da:**  
[gizabaliabideak@aranzadi.eus](mailto:gizabaliabideak@aranzadi.eus)